

tecnalia

MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Creating Growth : Improving Society

tecnalia.com



Ondo moldatzen gara berriazko soluzioak eskatzen dituzten arazo konplexuak konpontzen.

Arazoak gustatzen zaizkigu. Edozein arazo ikertzeko, **enpresei** eta erakundeei lehiatzen laguntzeko eta **gizartea** hobetzen laguntzeko aukera bat da.

Gure bezeroek deitu egiten digute arazo berri bat dutenean, edozein motatakoa dela ere, eta, **ikerketak aplikatuaren** bidez, soluzio zehatzak garatzen ditugu arazoak arazo izateari utz diezaion.

ARAZO BILA GABILTZA



Nor gara?

TECNALIA ikerketa eta garapen teknologikoko zentro bat da, Espainako handiena, erreferentziakoa Europa osoan eta Basque Research and Technology Alliance aliantzako kidea.





Egoitza Nagusia

📍 Euskadi

Bulegoak


- Madril
- Zaragoza

Atzerriko bulegoak

- Txina
- Kolonbia
- Frantzia
- Italia
- Serbia




Balio-katea



Misioa

**Ikerketa teknologikoa
oparotasun bihurtzea.**



Ikuspegia

**Enpresen eta gizartearen
eraldaketaren eragile izatea
etorkizun aldakorreko
erronketara egokitu daitezzen.**




**Pertsonak daude
teknologiaren atzean.**
Ikerketa aplikatuaren bidez
inpaktua eragiteko,
ezinbestekoa da talenturik
onena erakartzea, bertan
atxikitzea eta trebatzea.

**Pertsonen balioan
sinesten dugu**



TECNALIAKO pertsonak



Emakumeak *

* Zuzendaritzako postuen % 44 emakumeek betetzen dituzte.

1.520
langile



% 56

Gizonak



27

nazionalitate

Enpresekin eta erakundeekin lankidetzan aritzen gara, beren lehiakortasuna hobetzeko, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta era jasangarrian hazteko.

Ikerketa teknologikoa oparotasun bihurtzen dugu, enpresak eta gizartea etorkizun aldakorreko erronketara egokitu daitezen haien eraldaketa-eragile gisa jardunez.



Emaitzekin konprometituak gaude, beti bezeroak gogoan, eta gauzak haientzat errazak, hurbilak eta erabilgarriak izatea dugu eginkizun.

TECNALIAN, modu ausart eta proaktiboan jokatzeko gara, eta egunero zerbait berria sortzen auzartzen gara.

Elkarlanean aritzen gara, aktiboki. Geure burua eskaintzen dugu, elkar babesten dugu eta geure ideiak partekatzen ditugu, hobeak eta arinagoak izateko, eta balio gehiago sortzeko.



Ikerketa teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez, mundu hobe bat eraiki nahi dugu.

TECNALIAN, aktiboki hartzen dugu parte enpresentzat aberastasuna eta gizarterako enplegua sortzen.

Gainera, garapen berriak sortzen ditugu irtenbiderik ez zuten egoeretarako. Erronka global handiei erantzuteko, alor bateko baino gehiagotako teknologiak konbinatzen ditugu.



Nola lan egiten dugun

Ekonomian eragiten duten emaitzak

Gure bezeroen emaitzekiko konpromisoa dugu, eta inpaktu handiko aukerak sortzen dituzten soluzio teknologikoak garatzen ditugu.



TECNALIAN,
enpresen
mozkin
eta gizartearen
balio bihurtzen
dugu ezagutza.

Eragin
enpresariala



Eragin
soziala



Bezeroak

Enpresek TECNALIArekin I+Gan inbertitutako EURO BAKOITZEKO, **13,6 €** euro lortzen dituzte emaitza-kontuan.

Enplegua

Mantendutako lanpostuak guztira: **10.710**
TECNALIAko LANPOSTU BAKOITZEKO
Euskadin mantendutako lanpostuak: **7,3**

BPG

Ekarpenak, GUZTIRA: **746 milioi euro**
28,78 € sortuak euskal erakunde publikoek
TECNALIAN INBERTITUTAKO € BAKOITZEKO

Itzulkin fiskala


Ekarpenak, GUZTIRA: **90 milioi euro**
3,48 € lortuak euskal erakunde publikoek
TECNALIAN INBERTITUTAKO € BAKOITZEKO

Baliagarriak izan nahi dugu gizartearentzat


TECNALIAko ikerketak benetako eragina du gizartean, eta soluzio konkretuak garatzen ditu erronka global handietarako.

Eragin sozio-ekonomikoaren adierazleen bilakaera


EUSKADIN MANTENDUTAKO LANPOSTUAK, TECNALIAKO LANPOSTU BAKOITZEKO




EUSKAL ERAKUNDE PUBLIKOEN TECNALIAN EURO BAKOITZEKO SORTUTAKO EUROAK



ITZULKIN FISKALETAN LORTUTAKO EUROAK EUSKAL ERAKUNDE PUBLIKOEN INBERTITUTAKO EURO BAKOITZEKO



GURE BEZEROEN FAKTURAZIOA HANDITZEN DUTEN EUROAK, TECNALIAN INBERTITZEN DUTEN EURO BAKOITZEKO




Bikaintasun multiteknologikoa

**Hainbat diziplinatako taldea dugu,
hibridazio teknologikoaren bidez
gaur egungo eta etorkizuneko
beharrei aurrea hartzeko.**


tecnalia

Espezializazio teknologikoa


TECNALIAren H indizearen bilakaera



TECNALIAren argitalpenen bilakaera



TECNALIAko doktore eta doktoregaien bilakaera



Teknologiatan antolatutako estrategia teknologikoa

.....

Teknologia Planean identifikatutako teknologien inguruan antolatzen du TECNALIAk **Estrategia Teknologikoa**. Haien eragina ahalik eta handiena izan dadin, honela antolatzen ditu TECNALIAk: **zeharkako teknologiak** (merkatu batean baino gehiagotan eragina izan dezaketenak), eta **teknologia bertikalak** (merkatu bakar batean eragina dutenak).

Teknologia guztiek ezaugarri hauek dituzte: garrantzi teknologikoa, gaitasun zientifikoak eta teknologikoak, merkatu-eskaera eta merkatuan eraginik handiena izateko behar den ikerketa-masa kritikoa.

.....



Zeharkako teknologiak

- Automatizazioa, robotika eta kontrol mekatronikoa
- Zibersegurtasuna
- Ikusmen artifiziala eta interakzio bisuala
- Gainazalen ingeniari-tza
- Adimen artifiziala eta *Big Data*
- Metalak
- Nanoteknologia
- Polimeroak, konpositeak eta oinarri biologikoko materialak
- Sistema elektroniko txertatuak, potentzia-elektronika eta kontrola
- *Software* teknologiak
- Teknologia kuantikoak

Tecnología espezializatuak

- Klima-aldaketara egokitzea
- Biologia molekularra
- Biosintesia eta hartzidura
- Egitura-kalkulua eta fluido-en eta egituraren arteko interakzioa
- Airearen kalitatea eta akustika
- Bizi-zikloa eta ekodiseinua
- Zerbitzuko portaera
- Fidagarritasuna
- Garapen galenikoa
- *Offshore* sistemen dinamika
- Hiri-diseinua
- Diseinua eta simulazioa
- Ebaluazio biologikoa
- Erauztea eta kapsularatzea
- Eraikinaren fisika
- Hidrogenoa
- Suaren ingeniari-tza
- Zementu-materialak
- Meteorologia eta klima
- Eredu energetikoak
- Eredu semantikoak
- *Neural interfaces*
- *Power systems*
- Fabrikazio-prozesuak
- Kimika jasangarria
- Mintzen teknologia eta prozesuak areagotzea
- Hondakinak balorizatzeko teknologiak
- Teknologia fotovoltaikoak
- Termodinamika



Gure muina


TECNALIAN, enpresen mozkin eta gizartearen balio bihurtzen dugu ezagutza.

I+G+Baren bidez sortzen ditugun soluzioek enpresei inpaktu ekonomikoa, herrialdeari oparotasuna eta gizarteari balioa (bizi-kalitatea eta aurrerabidea) ekartzen diete.


Horregatik, funts hori laburbiltzen duen adierazpen hau geure egin dugu:

Creating Growth : Improving Society


Jardueren eta haien finantziazioaren arteko oreka




Finantzaketaren jatorria




Privatua eta beste batzuk



Europa



Eusko Jaurlaritza



Beste administrazio batzuk

Merkatuarekiko gertutasuna

Enpresa guztien bazkide teknologiko izatea dugu helburu, duten tamaina dutela, I+G+Bn dituzten beharrak dituztela.

Jarduera-eremuak



Gure jarduera-eremuak bat datoz garapen jasangarriko helburuekin (GJH)

Sektore eta teknologia anitzeko ikuspegiz entzuten diegu enpresei eta egiten dugu lana haiekin, erronka global handiei erantzuteko.

Hala, enpresentzat mozkinak eta gizartearentzat balioa sortzeko gai gara.



Fabrikazio adimenduna :



Egoera orokorra aldakorra da, eta sektore guztietako manufaktura-enprekin bat dator bilatzen dugun helburua: produktibitatean eragin positiboa izatea eta negozioen lehiakortasuna handitzea. Horretarako, **manufaktura adimentsua, malgua eta jasangarria bilatzen dugu**, digitalizazioaz, automatizazioaz eta ekoefizientziaz baliatuz materialak eta fabrikazio-prozesuak eraldatzen dituen aldaketaren eragile gisa.

Zertan lagundu diezazukegu?

- 4.0 Industriaren
- Makina, automatizazio eta robotika aurreratuak
- Industriaen deskarbonizazioa eta ekonomia zirkularra
- Material eta ekoizpen-prozesu berriak
- Fabrikazio aditiboa
- Sentsorika kuantikoa

Informazio gehiago



Eraldaketa digitala : ..



Izugarri gustatzen zaigu pentsatzea nolakoak izango diren prozesu, produktu eta zerbitzu digitalak mundu gero eta interkonektatuago eta interaktiboago batean, eta halakoak diseinatzea. Horretarako, hiru ardatz eragiletan oinarritzen dugu gure estrategia digitala: adimena, segurtasuna eta balioa sortzeko eredu berriak. Haiei esker, “datuaren ekonomian” oinarritutako proposamen bereizgarri bat garatzen dugu, zibersegurtasuna, bloke-kateak eta adimen artifiziala oinarri dituzten produktuen fabrikatzaile eta integratzaileentzat.

Zertan lagundu diezazukegu?

- Teknologia kuantikoak
- Adimen artifiziala
- Robotika eta sistema kognitiboak
- Interakzio-sistema aurreratuak eta 4.0 langilea
- Errendimendu handiko konputazioa datu masiboetarako
- Sistemen bizi-zikloa eta *DevOps*
- Zibersegurtasuna eta konfiantza
- Gauzen Internet
- Sentsorika eta eragintza
- Ikusmen artifiziala
- Mantentze-lan adimenduna

Informazio gehiago




Trantsizio energetikoa:

Energia sakonki deskarbonizatzen laguntzen dugu soluzio teknologikoak garatuz energia berriztagarriak lehiakorrago bihurtzeko, energia-sistemaren elektrifikazio adimenduna bultzatzeko eta hidrogenoak balio handiko bektore gisa duen potentziala zabaltzeko, eta, hala, 2050ean neutraltasun klimatikoa lortzeko.

Zertan lagundu diezazukegu?

- Energia berriztagarriak
- Sare adimendunak eta metaketa
- Energia positiboko eraikinak eta barrutiak
- Industriaren deskarbonizazioa
- Mugikortasun deskarbonizatua
- Energiaren digitalizazioa
- Trantsizio energetikorako materialak
- Klimaren eta energiaren arloko estrategia eta ingurumen-jasangarritasuna

Informazio gehiago



Mugikortasun jasangarria:



Teknologia eta negozio- eredu berriak diseinatzen eta garatzen ditugu, etorkizunean ingurumen- inpaktu txikiko mugikortasun- egoera konektatu, **efiziente, seguru eta inklusibo baterantz igarotzen laguntzeko.** Lan horretan sartzen da garraio-ibilgailuak, komunikazio-sistemak eta energia-azpiegiturak hobetzea eta interakzioan jartzea, eta hirietako eta hiriarteko ekosistemetan integratzea.

Zertan lagundu diezazukegu?

- Aireko hiri-mugikortasuna
- Mugikortasunaren kudeaketa adimenduna
- Mugikortasun jasangarrirako energia
- Garraiorako azpiegiturak
- Gidatze automatizatua
- Ibilgailu hibridoak eta elektrikoak

Informazio gehiago



Osasuna eta Elikadura :



Prebentzio-, diagnostiko-, pronostiko-, tratamendu- eta errehabilitazio- etapetan produktu eta zerbitzu pertsonalizatuak garatzea bultzatzen dugu, ikuspegi integral baten bidez, non kontuan hartzen baitira genetika, nutrizioa eta ingurune fisiko eta soziala, horiek baitira pertsonen osasunari eragiten dioten aldagai nagusiak.

Zertan lagundu diezazukegu?

- Elikagaien osagaiak eta konposatu funtzionalak
- Elikagai osasungarriak
- *In vitro diagnostikoa*
- Medikuntza birsortzailea
- Neuroingeniaritza
- Biomedikuntzako produktuak
- Robotika medikoa
- Osasun digitala eta irudigintza medikoa
- Garapen farmazeutikoa
- Laneko arriskuak prebenitzeko soinean eramateko gailuak
- Hiri-soluzio osasungarriak

Informazio gehiago



Hiri- ekosistema:

Hiria eta lurraldea positiboki eraldatzen eta garatzen laguntzen dugu, pertsoneri zuzendutako berrikuntza teknologikoko soluzio-multzo baten bidez, hiri-ingurune adimendunak eta karbono gutxikoak garatzeko.



Zertan lagundu diezazukegu?

- Ekomaterial adimendunak
- Eraikin adimendunak
- Energia eraikingintzan eta hirian
- Erresilientzia eta klima-aldaketa
- Hiri- eta lurralde-eraldaketa
- Hiri osasungarria
- Hiri-mugikortasuna
- Azpiegitura adimendunak

Informazio gehiago



Ekonomia zirkularra:



Ekonomia zirkularraren alde egiten dugu, **aldaketaren eragile eta trantsizio ekologikoaren bektore gisa**, enpresei eta gizarteari garapen ekonomiko zirkular jasangarrirako beharrezko eraldaketan lagunduz.

Hori dela eta, hiru driver-etan oinarritzen dugu gure estrategia: lehengaien kontsumoa **minimizatzea** eta hondakinak sortzea, produktuen eta aktiboen **bizitza erabilgarria ahalik eta gehien luzatzea**, birziklatzea eta **hondakinetatik balioa sortzea**.

Horien inguruan, gure balio-proposamena formulatzen dugu, eta, bizi-ziklo osoan, estrategia-konbinazioak eta zirkularitate-soluzio teknologikoak aplikatzen ditugu.

Zertan lagundu diezazukegu?

- Baliabide naturalak eta jasangarritasuna
- Produktuen eta prozesuen ekodiseinua
- *Circular industry*
- *Circular cities & regions*
- Hondakinak birziklatzea eta balorizatzea
- Digitalizazioa ekonomia zirkularrerako
- Bioekonomia

Informazio gehiago



Enpresekin erlazionatzeko ereduak




**Enpresa guztien bazkide
teknologikoa izan nahi dugu,
teknologiaren bidez inpaktu
handiko aukerak sortzeko.**

Elkarrekin, erantzun zehatzak eman
diezazkiekegu etorkizuneko beharrei.



Enpresekin erlazionatzeko ereduak.

TECNALIAk enpresekin dituen erlazioen ereduak enpresen berrikuntza teknologikoaren mailaren arabera dira, eta enpresa bakoitzaren beharretara egokitzen da.





1
Laborategi-zerbitzuak

I+G+Bko proiektuak

3
**Inbertsio-aukeren
garapena**



Laborategi-zerbitzuak


Aditu-talde bat eta laborategiak, azkar merkaturatu nahi dituzun prozesuak, sistemak eta produktuak garatzeko, ziurtatzeko eta baliozkotzeko.



Segurtasuna



Konfiantza



Hurbiltasuna

1




Location	Microbiology
Superficies	5334971
Superficies	5334972
Superficies	5334973
Superficies	5334974
Superficies	5334975
Superficies	5334978
Superficies	5334979
Superficies	5334980
Superficies	5334981
Superficies	5334982
Superficies	5334983
Superficies	5334984
Superficies	5334985
Superficies	5334986
Superficies	5334987
Superficies	5334988
Superficies	5334989
Superficies	5334990

2

I+G+Bko proiektuak

Zure enpresaren bazkide estrategiko izanik, **I+G+Bko proiektu pertsonalatuak garatzen ditugu zuretzat**, helburu bakar batekin: teknologiaren bidez zure negozioan eragina izatea.




Ikerketa



Garapena



Inplikazioa



Inbertsio- aukeren garapena

TECNALIA Venturesen bidez, zure I+Gari balioa emateko dauden arazoei heltzen lagunduko dizugu, eta zure negozioari hazten lagunduko diogu. Horretarako, teknologia merkaturatzeko prozesuaren oinarrizko hiru zutabeekin konektatuko zaitugu:



Gaitasun teknologikoak, zure emaitzen kontua hobetzera bideratuak daudenak.



Negozio-profila duten pertsonak, ahalmen horiek negozio bihurtzeko gai direnak.



Inbertitzaileak, negozioa garatzeko konpromisoa dutenak.

3




Enpresekiko lankidetzak.

Lankidetzak estuago baten alde egiten dugu, zu ahalik eta gehiena gogobetetzeko.

Bezero gogobetekak*

8,7 / 10


* 2023ko bezeroen gogobetetze-indizea.



Enpresetan parte hartzea

**Enpresa-sarean
sustraitua egonik eta
erakundeen babes sendoa
izanik, TECNALIAk oinarri
sendoa du zure enpresari
indarra emateko.**

100 enpresak baino gehiagok parte hartzen
dute gure gobernu-organoetan.



25

**patrono
bazkide**

Enpresak



11

**patrono
instituzional**

Eusko Jaurlaritza, Estatuko
Administrazio Nagusia, foru-
aldundiak, EHU



7

**patrono
izendatu**

Izen handiko pertsonak



6

**patrono
oso**

Udalak eta patronalak





Inpaktu bikoitzeko istorioak

Enpresentzat **mozkinak**
sortzeak zentzua du soilik
gizartearentzat balioa
sortzen bada.

Kontatzean gure ikurhitzari
erantzun diezaioketen istorioak.

Creating Growth : Improving Society



GESTAMP

Fabrikazio
aurreratua
automobilgintzan



Miguel Ángel Ferrández
R&D BIW Bilbao
zuzendaria, GESTAMP

“TECNALIArekin batera,
automobilgintzan fabrikazio
aurreratuko prozesuak ezarriz,
energia-kontsumoa, CO₂-
emisioak eta ekoizpen-kostuak
murriztea lortu dugu”



INFORMAZIO
GEHIAGO
tecnalia.com




**TECNALIAren GESTAMPen
arteko lankidetzari esker,
software aitzindari bat garatu
dugu, aukera emango diguna
automobilgintzako osagaiak
fabrikatzeko prozesuak material
malguagoetara, arinagoetara eta
handietara egokitzeko.**



**Lankidetzaz horri esker, gaur
egungo ingurumen-beharrei
erantzuneko dieten
automobilgintza-osagaiak
egiten ari gara.**

ACLARA

Sektore elektrikoko eta energiaren sektoreko ekipamenduen eta osagaien fabrikatzaileak



Pedro Urteaga
Global IEC
Engineering-eko
presidentea,
ACLARA-HUBBELL

“TECNALIArekin batera, produktu eta soluzio berriak sortzen ditugu, energia modu arduratsuagoan eta jasangarriagoan erabiltzeko”.




INFORMAZIO
GEHIAGO
tecnalia.com



ACLARAREN (Hubell) ingeniari-rikaintasuneko zentroan, TECNALIAREN teknologia anitzeko ezagutza eraldatzen da, eredu energetiko deskarbonizatua, elektrifikatua eta digitalizatuagoa bultzatzeko soluzio berritzaile bihurtzeko.



Gaur egun, ezagutza partekatua tresna ahalsua da gizarteari balioa emango dioten soluzioak sortzeko.



IMQ

Konpainia liderra Euskadin osasun pribatuan



Nicolás Guerra
IMQ Kliniken
zuzendari nagusia

“TECNALIArekin batera,
soluzio adimendunak garatzen
ditugu pertsonen lan-
baldintzak eta lan-bizitzaren
kalitatea hobetzeko,
lan-istripuen eta gaixotasun
profesionalen intzidentzia
murrizteko helburuarekin”.



INFORMAZIO
GEHIAGO
tecnalia.com



IMQ eta TECNALIA aktiboki parte hartzen ari dira proiektu aitzindari batean, gehiegizko esfortzuak eta lesio muskuloeskeletikoak saihesteko exoeskeleto pertsonalizatuaren belaunaldi berriak garatzeko.

Hobekuntza horiei esker, merkatuaren egungo beharretara egokitutako tresna teknologikoak sortu ahal izango dira, kostu efizienteagoa dutenak.

VIDRALA

Beirazko 8.000 milioi ontzi baino gehiagoren ekoizleak



Soraya Villa

VIDRALAko Operazioetako Datu Sistemen arduraduna

“TECNALIArekin batera, ikasi dugu teknologia aplikatua tresna bikaina izan daitekeela industrian dauden eguneroko arazoak detektatu eta konpontzeko eta produktu jasangarriagoak lortzeko.”



INFORMAZIO
GEHIAGO
tecnalia.com



VIDRALAren eta TECNALIAren arteko lankidetzak arazo arrunt bati erantzuna ematera dator: beirazko ontzietan burbuilak agertzea. Irtenbide bat bilatzeko, TECNALIAren potentzial teknologiko guztia eta VIDRALAK beiraren fabrikazioan duen esperientzia batzen ditugu.



Industrian parerik ez duen soluzio teknologiko bat lortu dugu, labeak hobeto kalibratzeko aukera ematen diguna, ekoizpen-prozesua kontrolatzeko, produktuaren kalitatea fintzeko eta energia-kontsumoak murrizteko. Hori onuragarria da enpresentzat eta gizarte osoarentzat.

ALUCOIL

Teknologikoki aurreratutako materialak fabrikatzen ditu sektore hauetarako: eraikingintza, garraioa eta industria



Belén Martín
ALUCOILen kudeatzaile nagusia

“TECNALIArekin batera, berrikuntzan oinarritutako soluzioen bidez erantzuten diogu merkatu-egoera berri bati, etxebizitza jasangarriagoak eta hiri-eredu inklusiboago batean integratuak bideratuz.”



INFORMAZIO
GEHIAGO
tecnalia.com



ALUCOIL eta TECNALIA lankidetzan hasi ziren, aluminiozko *honeycomb* panelen bidez fatxadak estaltzeko sistema berri bat aztertzeko helburuarekin.



Elkarrekin, soluzio berriak sortu ditugu etxebizitzak jasangarriagoak izan daitezen eta hiri-eredu inklusiboago batean integratuta egon daitezen, eta jendeak modu seguruagoan bizitzeko aukera izan dezan.

INKOLAN

Ur, gas, elektrizitate, telekomunikazio eta udal sareen azpiegiturei buruzko informazio digitalaren hornitzaileak



Lucía Alcibar-Arechuluaga
INKOLANeko Negozio Garapeneko zuzendaria

“TECNALIArekin batera, etorkizuneko hirien eraldaketa digitala eraginkortasunez lantzen dugu, faktore bereizgarri bat baliatuz: datuak.”



INFORMAZIO
GEHIAGO
tecnalia.com



INKOLAN eta TECNALIAren arteko lankidetzak garrantzi berezia du, elkarrekin lan egin baitugu hiri-inguruneekin erlazionatutako biki digitalak diseinatzen eta aplikatzen.



Datu horiek guztiak elkarrekin eta testuinguruarekin erlazionatuta, hiri adimendunagoak, jasangarriagoak eta pertsonen beharretara egokituagoak bultzatzeko gai izango gara.

NORBOLSA

30 urtetik gorako historia
duen inbertsio-zerbitzuen
enpresa



Iñaki Varela

**NORBOLSA Baliabideen
zuzendariorde nagusia**

“NORBOLSA TECNALIAren
esperientzia eta ezagutza tekniko
guztia aprobetxatu nahi genuen
zor-agiriak jartzeko finantza-soluzio
bat eraikitzeko eta zabaltzeko.”



INFORMAZIO
GEHIAGO
tecnalia.com




**NORBOLSAk eta TECNALIAk
lankidetzaz aitzindari bati ekin
zioten, kontratu adimendunetan
oinarritutako plataforma
teknologiko bat sortzeko,
aukera emango zuena
zenbait eragileren artean
finantza-tresnak azkar, seguru
eta garden jartzeko.**

**Bloke-kateen eta Web3-aren
potentzialari esker, soluzio berritzaile
seguru eta arinak sortu ahal izango
ditugu, negozio-mota guztietara
egokituak eta gizartearen premia
zehatzetara aplikatuak.**

i-DE

Iberdrola taldeko
banaketa elektrikoko
enpresa



Zigor Ojinaga
i-DE azpiestazioen
estandarizazio-arduraduna

“Belaunaldi berriko tresnak eta
ekipoak erabiliz, denbora eta
kostuak aurrezten ditugu, eta,
gorabeheraren bat gertatzen bada,
urrunetik konpontzen dugu.”



INFORMAZIO
GEHIAGO
tecnalia.com




i-DE eta TECNALIA lankidetzan
hasi dira, sare elektrikoko
ekipoak funtzionalki eta
zibersegurtasunez baliozkotzeko
baldintza berriak zehazteko,
horniduraren eraginkortasuna
bermatzeko eta, aldi berean,
egiaztapen zorrotzenak
betetzeko.



Efizientzia energetiko
handiagoa eta enpresei eta
gizarte osoari onura ugari
dakarzkien soluzio teknologiko
bat garatu dugu.

COREMARINE

Utilities eta
elektrizitate-sorkuntza




Carlos López
COREMARINEko
Teknologiako zuzendaria

“Ikuskapen- eta
monitorizazio-soluzio
berritzaileak garatzen ditugu,
itsasoan instalatutako gailuetara
sartu behar izatea nabarmen
murrizten dutenak.”



INFORMAZIO
GEHIAGO
tecnalia.com



COREMARINEren
eta TECNALIAren arteko
artekolankidetzak, besteak
beste, eolika flotatzailearen
operazio- eta mantentze-
jarduera konplexu eta
garestiak efizienteago egitean
oinarriturik dago.

Itsas energiekin lotutako arazoak
konpontzeko digitalizazioa aplikatzeko
modu berritzaile bat da. Proiektu
horren bidez, prozesuen kostuak
murrizten dira, eta errazagoa da
energia eoliko flotatzailea
merkaturatzea.

FERSA

Automobilgintzaren
sektorerako
errodamendu-soluzio
osoak



Fernando Cebrián
Eragiketen zuzendaria
FERSA


“Soluzio teknologiko berritzaile bat
garatu dugu: ekoizpen-prozesuen
efizientzia operatiboa hobetzen du,
produktuen kalitatea handitzen du
eta fabrikaziotik eratorritako
ingurumen-inpaktua murrizten du.”



INFORMAZIO
GEHIAGO
tecnalia.com



FERSAren eta TECNALIAren
arteko lankidetzak, berrikuntzan eta
adimen artifizialean oinarritzen da,
eta datuak kudeatzeko tresna bat
garatu da, errodamenduak
fabrikatzeko lerro baten
simulazio-ereduak eta prozesua
kontrolatzeko adimen artifiziala
biltzen dituena.



Soluzio horrek abantaila ugari ematen
dizkie industria-sareari, ingurumenari
eta gizarte osoari.

CIE AUTOMOTIVE

Automobilgintzako
merkatuko osagaiak,
multzoak eta
azpimultzoak



Óscar Valbuena
Prozesu-ingeniaría
CIE

“Fabrikazio aurreratuko ibilbide
berri bat diseinatu dugu,
geometria horzdunak sortzeko
bi teknologia hibridatuz.”



INFORMAZIO
GEHIAGO
tecnalia.com



Etorkizuneko ibilgailuen
multzo diferentzialerako
soluzio berritzaile bat
garatzeko CIEren eta
TECNALIAREN arteko
lankidetzaren bidez
gauzatu dugu.



Fabrikazio aurreratuko bi prozesu
horien konbinazioari esker, **efizientzia**
handiagoa lortzen dugu lehengai
gehiago aurreztuz, eta horrek, gainera,
energia gutxiago kontsumitzea eta
azken mekanizazioaren kostuak
murriztea dakar.

VAILLANT SAUNIER DUVAL

Berokuntzaren eta aireztapenaren industria teknologikoan liderrak



Ricardo Fernández
Salmenta aurreko
laguntzako ingeniaria
VAILLANT SAUNIER
DUVAL

“Energia fotovoltaikoarekin koordinatuta funtzionatzen duen bero-ponpa bat sortu dugu, energia berriztagarriak erabiliz erosotasuna optimizatzeko.”



INFORMAZIO
GEHIAGO
tecnalia.com



VAILLANT SAUNIER DUVALen eta TECNALIAREN arteko lankidetzari esker, proba-sorta bat egin dugu gune kontrolatuak dituzten laborategietan, eta haiei esker erreproduzitu ahal izan da sistemaren benetako portaera.



Gure bizitzetan energia berriztagarriak integratzen dituen negozio-aukera berri bat eta hilez hil aurrezteko aukera bat da.

CINFA

Espainiako farmazia-merkatuko laborategi liderra



Francisco José Aranda Kalitateko zuzendaria CINFA

“Aliantza hori konfiantzazko eguneroko harremanean oinarritzen da, eta, haren bidez, lantalde bat sortu dugu, sendagaien ekoizpenarekin lotutako etapa guztiak modu koordinatuan lantzen dituenena.”



INFORMAZIO
GEHIAGO
tecnalia.com



CINFAREN eta TECNALIAREN arteko lankidetzak, garatzeko eta ekoizteko dugun gaitasuna handitzeko asmoz sortu da.



Kalitatezko sendagai eskuragarriak sortzeko aukera ematen digu lankidetzak honek, pertsona guztiok denbora gehiagoz osasun hobea izan dezagun.



Bezeroak

Gure bezero batzuk:



Aliantzak:



Erreferentzia European



Erreferentziako zentroa gara European

Ikerketa teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez, mundu hobe bat eraiki nahi dugu.

Ezagutza enpresen mozkin eta gizartearen balio bihurtzeko.




1.a

Espainiako lehenengo erakunde pribatua da, EBko Horizon Europe Programako kontratazioen, parte-hartzeen eta gidatutako proiektuen kopuruari dagokienez.




15. postuan, Europako 2.500 ikerketa- erakunderen artean.

ITURRIA: Funding & Tenders
2024ko otsaileko datuak



tecnalia.com

Top 25 REC Organisations (EU contribution)




15.a



Horizon Europeko parte-hartzea.

2023ko abenduaren 31ko datuak



Horizon Europe-n partenariatuetan parte-hartzea

EB gero eta gehiago ari da kanpora ateratzen kudeaketa I+G+Ban eragiteko autonomia handia duten erakunde publiko-pribatuetan.

TECNALIAren arrakastaren gakoetako bat izan da **Europako 20 partenariatu garrantzitsutan baino gehiagotan duen posizionamendua.**

1

EIT

Health
Manufacturing
InnoEnergy
Urban Mobility
Cultural & Creativity

2

KO-PROGRAMATUAK


AI, data and robotics (ADRA)
Made in Europe
Transforming the EU Process Industry for a Sustainable Society (Processes4Planet)
Global Competitive Space System
People-centric sustainable built environment (Built4People)
Towards zero-emission road transport (2ZERO)
Connected, Cooperative and Automated Mobility (CCAM)
Batteries European Partnership Association (BATT4EU)

3

A187 PARTENARIATU INSTITUZIONALIZATUAK

High performance computing
CHIPS JU - ex-Key Digital Technologies
Transforming EU's rail system
Clean Aviation
Clean Hydrogen Europe
Circular Bio-based Europe

Presentzia EIT innovation communityetan



TECNALIA Ventures




tecnalia ventures

Technology Value for Growth

TECNALIAren funtzio korporatiboa da, eta **I+G+Bn** egiten duen inbertsioa balorizatzea du helburu. Horretarako, *deep tech* negozio-aukerak identifikatzen eta kudeatzen ditu, *venture building* prozesu baten bidez.

Horretarako, edozein berrikuntza-ekosistemaren hiru zutabe nagusiak lotzen ditu:

- Oinarri teknologikoko ideiak sortzen dituzten pertsonak (*mind*).
- Ideia teknologikoak negozio-aukera bihurtzeko gai diren pertsona kudeatzaileak (*management*).
- *Deep tech* ekimenaren alde egiten duten inbertitzaileak (*money*).



Finantzaketa publikoa

Heriotzaren harana


Inbertsio pribatuak

Aktibo teknologikoen inkubazioa bizkortu, gizartean balioa sortzeko gai diren inbertsio-aukera bihurtu arte: *DEEPTECH VENTURE BUILDING*

Europa mailako patente-
eskaeretan, TECNALIA da,
gaur egun, **Espainiako laugarren
erakunde pribatua.**

Azpimarratzekoa da 2012tik
eskatutako/lortutako EPO/PCTen
proportzioa: % 92.

Jabetza industrialia




2023ko abenduaren 31ko datuak



Azken bost urteetan TECNALIAK
sortutako *deeptech startup*
partaidetuen **biziraupen-tasa**
% **85**ekoa da.

Deeptech startup-ak



2023ko datu erantsiak



TECNALIAk bultzatutako enpresak :



AUREA
www.myaurea.es



DIGIMET
www.digimet.es



ACUSTRAIN
www.acustrain.com



ELCODE



ADDILAN
www.addilan.com



GO4IT SOLUTIONS
www.go4it.solutions



FESIA
www.fesiatechnology.com



INGREDALIA
www.ingredalia.com



VIXION
www.vixion360.com



IZPITEK SOLAR
<http://www.izpitesolar.com/>



NEOS SURGERY
www.neosurgery.com



BIOKEMIK
www.biokemik.eu



NAUTILUS
www.nautilusfs.com



H2SITE
www.h2site.eu



VELTIS
www.veltisrating.com



INTELLIALERT
www.intellialert.es/



SOLARCRAFT
www.solarcraftaerospace.com



Gobernu-organoak



Patronatua :

LEHENDAKARIA

INGETEAM SA

Alex Belaustegui

LEHENDAKARIORDEA

AYESA IBERMÁTICA SA

José Manuel Barrutia

IDAZKARIA

KUTXABANK SA

Fernando Irigoyen

PATRONO BAZKIDEAK

ACLARA METERS SL

Pedro Urteaga

AERNNOVA AEROSPACE SA

Gemma Ortiz de Barrón

ARTECHE CENTRO DE TECNOLOGÍA AIE

Roberto Ortiz de Zarate

AYESA IBERMÁTICA SA

José Manuel Barrutia

CEMENTOS LEMONA SA

Elena Guede

CIE AUTOMOTIVE SA

José Esmorís

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES SA (CAF)

Imanol Iturrioz

EPTISA Cinsa INGENIERÍA Y CALIDAD SA

Luis Villarroya

FAGOR EDERLAN SCOOP

Juan María Palencia

FEDERACION ESPAÑOLA DE ASOCIACIONES DE FUNDIDORES

Marcial Alzaga

GESTAMP AUTOMOCIÓN SA

Maria José Armendáriz

GRUPO IGUALMEQUISA SA

Nicolás Guerra

HEIDELBERG MATERIALS HISPANIA CEMENTOS SA

José María Echarri

IBARMIA INNOVATEK SLU

Arrate Olaiz

IBERDROLA SA

Izaskun Rica

INGETEAM SA

Alex Belaustegui

IRIZAR

Imanol Rego / Aitor Etxebeste

KUTXABANK SA

Fernando Irigoyen

PETRÓLEOS DEL NORTE SA (PETRONOR)

Joaquim Coello

SIEMENS GAMESA RENEWABLE ENERGY INNOVATION AND TECHNOLOGYSL

Jon Lezamiz

TUBACEX SA

Diego Herrero

VELATIA SL

Alejandro Ormazabal

VICINAY MARINE

Jesús Navas

VIUDA DE SAINZ SL

Pedro Sainz

ZIV APLICACIONES Y TECNOLOGÍA SL

Borja Negro Rua

PATRONO INSTITUZIONALAK

EUSKO JAURLARITZA

Ana Camacho

Alberto Fernández

Estíbaliz Hernáez

Marian Ibarrondo

Adolfo Morais

Aitor Urzelai

ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRA

Raül Blanco

ARABAKO FORU-ALDUNDIA

Javier Hernando

BIZKAIKO FORU-ALDUNDIA

Joseba Mariezkurrena

GIPUZKOAKO FORU-ALDUNDIA

Jon Gurrutxaga

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Guillermo Quindós

PATRONO OSOAK

BILBOKO UDALA

Iosu Madariaga

DONOSTIAKO UDALA

Eneko Goia

GASTEIZKO UDALA

María Nanclares

ADEGI

José Miguel Ayerza

CEBEK

Carolina Pérez Toledo

SEA - ARABAKO ENPRESARIAK

Aitor Otaola

IZENDAPEN LIBREKO PATRONOAK

Jon Azua

Eva Larra

Ivan Martén

Josep Maria Martorell

José Maria Mato (Ezagutzaren

Komunitateko patronoa)

Miguel Ángel Morell

Rafael Sterling

Bazkide laguntzaileak :

ACLARA METERS SL

AIANOX SA

ALSA

AMURRIO FERROCARRILY
EQUIPOS SA

ARCELORMITTAL INNOVACIÓN,
INVESTIGACIÓN E INVERSIÓN SL

ARTECHE CENTRO DE
TECNOLOGIA AIE

AYESA IBERMÁTICA SA

BATZ SCOOP

BURDINOLA SCOOP

CEMENTOS LEMONA SA

CIE AUTOMOTIVE SA

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE
FERROCARRILES SA (CAF)

EPTISA Cinsa INGENIERÍA Y
CALIDAD SA

ESTUDIOS GIS SL

EUSKAL FORGING SA

FAGOR EDERLAN SCOOP

FEDERACIÓN ESPAÑOLA
DE ASOCIACIONES DE
FUNDIDORES

FUNDACIÓN TECNALIA
COLOMBIA

GESTAMP

GRUPO AERNNOVA

GRUPO GORLAN

GRUPO IGUALMEQUISA SA

GRUPO TAMOIN SA

GRUPO TEKNEI

HEIDELBERG MATERIALS
HISPANIA CEMENTOS SA

IBARMIA INNOVATEK SLU

IBERDROLA SA

INGETEM SA

INKOLAN

IRIZAR

KUTXABANK SA

LAN MOBEL SCOOP

MADERAS MEJORADAS
INDUSTRIAL SAU

PETRÓLEOS DEL NORTE SA
(PETRONOR)

SAPA PLACENCIA SL

SIDENOR ACEROS ESPECIALES SL

SIEMENS ENGINES R&D SA

SIEMENS GAMESA RENEWABLE
ENERGY INNOVATION AND
TECHNOLOGYSL

TALGO

TECMAN, SERVICIOS DE VALOR
AÑADIDO SL

TRADEBE SA

TUBACEX SA

ULMA HORMIGÓN
POLÍMERO SCOOP

VELATIA SL

VICINAY MARINE

VIUDA DE SAINZ SL

ZIV APLICACIONES Y
TECNOLOGÍA SL

BILBOKO UDALA

DONOSTIAKO UDALA

GASTEIZKO UDALA

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEA



Enpresen bazkide teknologikoa:

Enpresetako parte-hartzea.

Enpresa-sarean sustraitua egonik eta erakundeen babes sendoa izanik, TECNALIAk oinarri sendoa du enpresei **indarra emateko**.

100 enpresak baino gehiagok parte hartzen dute gure gobernu-organoeetan.

Patronatua

25 7 11

enpresa

izendapen libreko patrono

patrono instituzional

Unitate operatiboen kontseiluak

100 enpresa

Trantsizio energetiko, klimatiko eta urbanoa

Industria eta mugikortasuna

Digital

Lab Services

Osasuna eta Elikadura

Batzorde Exekutiboa

11 1

enpresa

gobernu

Bazkide laguntzaileak

47 3 2

enpresa

udal

unibertsitate

Batzorde delegatuak eta aholku-batzordeak

Batzorde Exekutiboa


Izendapenen eta Bazkideen Batzordea

Ikuskaritza Batzordea

Estrategia Batzordea

Zaintza Kontseilua





**Creating
Growth
Improving
Society**

